

MARÍA BARRENA-REN HITZALDIA

Maria Barrena Zuzenbidean lizentziaduna da (lege eta ekonomia espezialitate) ikasketok Deustuko Unibertsitatean egin zituelarik. Sektore pribatuan esperientzia laburra izan ostean, Bizkaiko Foru Aldundian hasi zen lanean; erakunde horretan hainbat lanpostu izan zituen Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegian (batzordekide, batzordekideen buru, legelari eta idazkari). 2000 urtean Ogasun eta Finantza Sailean sartu zen Zeharkako Zergen Zerbitzuko buru bezala, egun ere lanpostu hori duela. Irakaskuntzari dagokionez, Zerga Zuzenbideko Masterean parte hartzen du eta HAE Erekin eta Ekonomia-lari Eskolarekin elkarlanean ari da Aldundiko Zerga Kodea idazteko

Errekinen fiskalitatea

Lehenik eta behin, erosten dugun gasolio litro bakoitzeko hiru zerga ordaintzen ditugula adierazi beharra dago —gauza bera gertatzen da gasolinarekin ere—. Zerga berezia deritzona (hidrokarburoei eragiten diena), egun 1000 litro bakoitzeko 278 €koa da. Horrek zera esan nahi du, eskuratzen den litro bakoitzeko 27 zentimo ordaintzen dugula. Zerga hori, BEZ ez bezala, ez da gastatutako diruaren arabera aplikatzen, erositako litro kopuruaren arabera baizik. Produktu-litro bakoitzeko ordaintzen da zerga.

Gasolioak beste zerga bat ere jasaten du, BEZa, alegia; zerga horren tasa % 16 da eta oinarria ordainaren osotasunari aplikatzen zaio. Horrek zera esan nahi du, erregaiaren salneurria eta horri ezartzen zaizkion zergak izan behar direla aintzat. Hori dela eta, oinarrian zerga berezia eta hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmentei dagozkien zerga daude sartuta.

Azken hori da, hain zuzen hori aipatuko dugun hirugarren zerga. 2002ko urtarri-lean sortu zen, parlamentuko gutxiengo katalanaren ekimen baten ondorioz, eta zergaren helburua osasunarekin edo ingurumenarekin lotutako gastuetarako erabiltzea da.

Hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmentetan ezarritako zergak bi tarte ditu. Lehena, 1.000 litro bakoitzeko 24 €koa, estatuko tarte deritzona da eta era berean aplikatzen da estatu osoan. Bigarrenak, autonomiako tarte deritzonak, autonomia erkidegoei zerga gehigarria ezartzeko ahalmena ematen die. 2006ko uztailera arte, zerga hori 1.000 litro bakoitzeko 24 €koa zen baina, autonomia erkidegoetako presidenteen batzarraren ostean bikoiztu egin zuten.

Foru Aldundiek araudi propioa ezartzeko orduan duten gaitasuna oso txikia da, izan ere, araudi komuna duten adostutako zergak dira eta, horien kudeaketa foru aldundien esku badago ere, araudiaren jatorria Estatuan dago. Bestalde, Estatuak jarduteko gaitasun oso murrizta du, EBren eskutik zuzeneko zergatan adostasun gutxi badu ere, BEZari eta zerga bereziei dagokienez, zuzentarauak oso argiak dira.

Arauen hitzarmena

2007ko urtariletik aurrera, 96/2003 Zuzentarauak gasolioko zergatan gutxieneko mailak ezartzera behartzen ditu estatuak. Europar Batasunak nolabaiteko frustrazioa du ez baitu aurkitzen herrialdeek tasa berdinekin lan egiteko modua; hori dela eta, gutxieneko eta gehieneko tarteak ezarri behar izan ditu. Gasolioaren gaineko zerga bereziaren gutxienekoa 1.000 litro bakoitzeko 302€koa da eta horren aurrean arazo bat dago: 2006ko abenduaren 31n hemen tarte horren azpitik geundela, hain zuzen ere. Berrito ere gorakada bat egin behar dute 2012an, gutxieneko tartea berrito ere 1.000 litro bakoitzeko 330 €koa izan dadin.

Gasolioan Hidrokarburoen gaineko Zerga Bereziaren tipoaren hazkundera egitera behartzen duen zuzentarauak igoera egin behar duten herrialdeei, hala nahi dutenean, Gasolio Profesional izenekoa ezartzeko aukera ematen die; horixe da Espainiar Estatuak 2006ko amaieran egin zuena. Kidego onuradunei dagokienez, ez Estatuak ez Foru Aldundiek ezin dute askorik zehaztu, Europako araudiak mugak jartzen baititu.

Zer bueltatzen da?

Eskatutako gutxieneko mailara — 1.000 litro bakoitzeko 302 € — heltzeko helburuz, zerga bereziak 1.000 litro bakoitzeko 8,14€ko gorakada izan du, aurretik, zerga berezia eta txikizkako salmenten gaineko zerga gehituz, 1.000 litro bakoitzeko 293,86 €a heltzen baikin.

Zerga-onuraren salbuespena zergak itzultzeko sistema batek osatzen du. Zerga berezien kudeaketa arruntan, kidego batek gutxiago ordain dezan nahi dugunean, aplikatu daitezkeen bi mekanismo daude.

Horietako bat zerga produktua erosten den unean murriztean datza. Prozedura hori nekazaritza, arrantza, berogailu eta abarrentzako gasolioarekin erabiltzen da. Erregai horiek behar bezala erabili dituztela kontrolatu ahal izateko, koloregaiak eta trazatzaileak gehitzen dizkiete.

Bigarren mekanismoarekin ordainsari arrunta ordaintzen da — erregaiaren erabilera arrunta izango balitz bezala — eta geroago bakoitzari dagokion itzulketa eskatu behar da. Azken hori da gasolio profesionalarentzat aukeratu den formula. Arrazoiak honako hau da: salneurri txikiagoko salmentan oinarritutako sistema ezarri nahi izanez gero, banatutako gasolina hornigailuak jarri beharko genituzke eta hornitegi-tako instalazioak aldatu beharko genituzke, horrek dakarren kostuarekin.

Gasolio Profesionala arautzeko Zerga Ofizialei buruzko Legea aldatu behar izan zuten; hori 2006ko azaroan onartutako Iruzuraren aurkako Prebentzio-Neurriei buruzko Legearen bitartez egin dute. Prozedura bitxia da, iruzurraren aurkako legeriaz baliatzea Gasolio Profesionala arautzeko, baina horixe izan da egin dutena.

Geroago, administrazio guztiek onartu dituzte itzulketa egiteko prozedurak

garatzen dituzten aginduak. Lehen Estatuak izan zen (2006ko abenduan), hurrengoak Nafarroa eta, geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek itzulketa egiteko formulak buruzko arautegi zehatzagoa onartu zuten.

Aurretik esan bezala, 2006ko zerga bereziari dagokion tasaren hazkundera itzuliko dute, hau da, 1.000 litro bakoitzeko 8,14 €. Autonomiak tartea ezarrita duten autonomia erkidegoek, hala erabakitzen badute, kopuru horren zati bat edo kopuru hori osorik (1.000 litro bakoitzeko 48 € arte hel daiteke) itzul dezakete. Tarte horretan legoke itzulketaren zatirik garrantzitsuena. Tarte indarrean duten autonomia erkidegoak Asturias, Katalunia, Gaztela, Galizia, Madril eta Valentzia dira. Euskal Autonomiak Foru Aldundi batek ere ez du ezarri zerga-tarterik, itzulketa, beraz, 1.000 litro bakoitzeko 8,14 €koa da gehienez.

Erakundeetan izandako bileratan itzulketa egiteko formulak ahalik eta sinpleen egitea adostu dute, hori horrela, garraiolarien administrazio bakarrera joan behar dira beren kudeaketa egiteko. Horri esker, garraiolari bizkaitar batek itzulketak Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik lortuko ditu, gasolinaz beste autonomia erkidegoetan hornitzen bada ere.

Nortzuk dute itzulketa jasotzeko eskubidea?

Itzulketa jasotzeko eskubidea salgaien errepide-garraiorako soilik erabiltzen diren ibilgailu eta elkartutako ibilgailu-multzoek dute, besteren kontura zein bere kabuz jarduten direnek. Hori dela eta, garraioan aritzen diren enpresen flotek ere itzulketa jasotzeko eskubidea dute, nahiz eta hori enpresaren jarduera nagusia ez izan. Hori guztia baimendutako gehieneko pisua 7,5 tonakoa edo handiagoa izateko baldintzarekin.

Bidaiaren garraiorako (erregularra zein noizean behingoa) erabiltzen diren eta zuzentarauaren M2 edo M3 mailatan sartzen diren motor-ibilgailuek ere itzulketa jasotzeko eskubidea dute. Itzulketa jasotzeko eskubidea duen hirugarren kidegoa taxime-troa duten taxi gidariena da.

Itzulketaren mugak

Itzulketari lotutako kontsumoaren bolumena mugatuta dagoela jakitea funtsezkoa da. Ibilgailu bakoitzari urteko dagokion litroen gehieneko kopurua 50.000 litrokoa da salgaien garraiorako eta 5.000 litrokoa bidaiariak taxian garraiatzeko. Taxi-lariantzako onurak ez dira oso esanguratsuak, funtsean, euskal autonomia erkidegoko hornitegiak erabiliko dituztelako (bertan ez dago autonomia-tarterik) eta urteko itzulketa ez baita izango 40 €tik gorakoa izango. Egoera aldatu egiten da salgaien garraiolarien kasuan, aipatu tartea duten autonomia erkidegoetan gasolioz hornitzen diren horien kasuan, bereziki.

Zer egin behar da itzulketa lortzeko?

Itzulketa jaso ahal izateko lehen baldintza garraiolari bakoitzari dagokion zerga administrazioan erroldatzea da. Gasolio Profesionala administrazioan antolatzeko izandako atzerapena dela medio, ezin izan dugu lortu ibilgailuak 2007ko urtarrilaren 1ean erroldatuta egotea. Azkenik, urteko lehen hiruhilekoa barne hartzen zuen epea ezarri

zuten eta sasoi horretan egindako altek urtarilaren 1eko data izango zutela ezarri zen, nahiz eta horiek azken egunean izapidetu (2007ko martxoaren 31n).

Eskakizuna betetzeko orduan, administrazioek lehentasuna eman diote ballabi-de telematikoak erabiltzeari. Izan ere, Estatuak, Bizkaiak eta Nafarroak Internet bidez egindako altak baino ez dituzte onartzen. Gipuzkoak bide telematikoa eta inprimakiak aurkeztea onartzen du eta Arabak oraindik ez du erabaki zein den bere behin betiko jarrera.

Dena dela, Internet bidezko “alta biguna” egiteko sistema hartu dute, kudeaketa garraiolarien aholkulariek edo kudeatzaileek edo sektore horretako elkarte edo sindikatuek egin ahal izan dezaten. Bestelako kudeaketa telematikoetan hirugarrenentzat dauden kontrol zorrotzak murriztu egin dituzte.

Aipatzekoa da ere Espainian gasolioz hornitzen diren EBko garraiolariari zerga itzultzera behartzen duen zuzentaraua. Beraz, posible da batasuneko garraiorako ibilgailuak altan ematea, betiere ordezkari fiskala Espainian izendatzen badute.

Erroldan alta eskutzeko datuak

Erroldan alta telematikoa emateko orduan, sistemak eskatzailearen IFZ (EBko gainerako herrialdeetako garraiolarien kasuan Espainiako ordezkariaren IFZ ere eskatuko du), jardueraren hasiera data eta baja eta itzulketak sartzeko kontu korrante zenbakia (20 digitu Estatuarentzat eta “swift” kodea atzerritarrentzat) eskatuko ditu. Horretaz gainera, esku hartuko duten ibilgailu guztien matrikula zenbakia eskatuko du, zein estatu kidedan matrikulatu den, eta horiek jardueran hasteko eta bajaran emateko data eskatuko ditu. Horrekin batera, garraio motari buruzko informazioa, txartelaren zenbakia eta baimendutako gehieneko masari buruzko informazioa bilduko du.

Bidaiarien garraioaren kasuan, baimen zenbakia ere eskatuko du eta, Sustapen Ministerioaren baimena ez duten taxiari dagokienez, nahitaezkoa da udaleko baimenaren zenbakia eta baimen horrek zein udalari dagokion adieraztea.

Webgunearen bitartez prozedura errazteko sistema jarri dute. Garraiolaria zein den jakin ostean, dagokion administrazioak Sustapen Ministerioko ibilgailuen eta baimenen erroldarekin lotzen du eta, ibilgailu eta baimenen zerrendak lortzen dituzenez, nahikoa da laukitxoak markatzearekin, inolako informazio gehiago eman behar gabe.

Gertakari posibleak (eskuratu berri diren eta alta bezala azaltzen ez diren ibilgailuak, aurreko titularraren izenean agertzen diren ibilgailuak, eta abar) estaltzeko helburuarekin eskuz betetzeko gailua ere ezarri dute.

Non erroldatu?

Aurretik esan bezala, garraiolariak prozesu osoa instantzia bakarraren aurrean kudeatuko dute, haien zerga-helbidean dagoenean, hain zuzen ere, haien flotaren zati bat beste mugape batean matrikulatuta dagoenean ere. Atzerritarrek IFZ lortu duten lekuan, eta haien zerga-ordezkararen bizileku den lekuan egin behar dute.

Errolda araubidea

Alta eskatu ondoren, sistema informatikoak erregistro zenbaki bat esleituko du eta onuradunen erroldan izena emango du. Eskabideak ez dira onartuko baldintzaren bat betetzen ez bada. Onuradun izan nahi duten horiek alta onartu edo ukatu egin zaien jakiteko, Internet bidezko kontsulta azkarra egiteko aukera dute. Bide hori bera erabil dezakete hasieran eman dituzten datuetan aldaketak egiteko. Bestalde, Administrazioak ezarritako baldintzak betetzeari utzi dioten ibilgailuen datuak aldatzeko edota horiek erroldatik ezabatzeko eskubidea erreserbatzen du.

Txikizkako saltokiak?

Itzulketa kudeatzeko metodoa garraiolariak gasolinaz hornitzeko erabiltzen duten formularen araberkoa da. Puntuak egiaztatzeko orduan, ez da berdin jarduten hornitegietan egindako eragiketekin edo norik bere burua hornitzen duenean.

Hornitegietan egindako eragiketen kasuan, itzulketa eskubidearen merezimendudun izateko beharrezkoa da Gasolio Profesionalaren txartel deritzonekin ordaintzea; txartel horien baimena Zerga Administrazioak ematen du eta txartelak kreditu txartelak, zordunketa txartelak edo ordainketa txartelak izan daitezke, bertan titularraren izena edo enpresaren izena eta ibilgailuaren matrikula zenbakia azalduko delarik. Ordainketak egiaztatzeko beste edozein aukera —esaterako, fakturak aurkeztea— baliogabea da.

Gasolio profesionalaren txartelak

Txartelak igorri dituzten entitateek gasolioz hornitzeko eragiketa bakoitzaren datuak dagokion erakundeari bidaltzeko prozedura informatikoa ere sortu dute.

Administrazioari dagokionez, txartel horiekin ordaintzea zerga-aitorpena egitea bezala da. Horrek zera dakar ondorioztat, txartela erabiliz, zergaren itzulketa era automatikoa eskatuko dela eta garraiolariak ez duela beste izapide osagarririk egin behar.

Itzulketak hiru hilean behin burutuko dira. Hiruhileko bakoitzaren hasieran aurreko hiruhilekoari dagozkionak egin behar dira. Txartelak igortzen dituzten enpresek egindako eragiketen informazioa astero bidali behar dute Ogasunera, nahiz eta, salbuespen gisa eta gertakari tekniko jakin batzuek justifikatzen dutenean, hilero egitea posible izan. Ordainketaren bat kontabilizatzeke orduan orekarik ez badago —hiruhileko azken egunetan zehar egindakoetan, adibidez— ordainketa hasiera batean zegokion hilabetean egin beharrean, hurrengo hilabetean egingo da.

Aurretik adierazi bezala, Gasolio Profesionalaren txartelak igortzeko interesa duten entitate edo zerga-ordaintzaileek Zerga Administrazioari eskatu behar diote bai-

mena; onartu ostean, Administrazioak dagokion webgunetik kontsulta daitekeen zerranda sartuko ditu.

Ezarritako prozedurarekin beharrezkoa da gasolindegia eta txartela igortzen duen entitatearen artean, eta entitate horren eta Ogasunaren artean lotura egotea. Txartelaren titularraren nortasuna, ibilgailuaren matrikula zenbakia, eragiketaren data eta ordua, eskuratutako erregai kopurua eta erregai mota zein diren jakin behar da. Aipatutako azken informazio hori garrantzizkoa da biodieselez egindako nahasketen kasuan, % 5etik gorako nahasketen konposizioa zehaztu behar baita. Ezinbestekoa da ere txikizkariaren identifikazio kodea jakitea, horri esker jakin ahal izango baita zein probintzian dagoen eta, horren ondorioz, autonomia-tartea itzuli behar zaion.

Hornigailu propioen instalazioak

Hornigailu propioetan hornitzen diren langileen kasuan, ez da aurreko sistema aplikatu behar; horiek itzulketa zerga-aitorpenaren bitartez eskatu behar dute. Formula horren alderdirik eztabaidatuena “zutoina”ren titularra garraio-bidearen titular berbera izan behar dela da. Ez dago inolako arazorik titularrak bere kamioi edo autobus flota hornitzen duenean, baina arazoak sortzen dira kooperatiben kasuan, horietan kide guztiak ez baitira hornigailuaren jabe. Kasu horretan, kooperatibistek txartelen sistema erabili behar dute.

Itzulketak aukeratzen dituzten hornitzeko guneen jabeek gune horiek erregistro batean sartu behar dituzte, Jarduera eta establezimenduen kodea izenekoan, Zerga Administrazioak erregistro zenbaki bat eman diezaien eta zerga berezien datu-baseetan identifika dezan.

Instalazioetan hornigailua eta kontabilitatea lotzen dituen sistema informatiko integratua izan behar dute, eragiketen kontrola eta jarraipena egitea posible izan dadin. “Zutoinak” gasolio sarrera eta irteerei buruzko informazioa emateko programatuta egon behar dira eta, azken kasu horretan, itzulketen mende dagoen flota propioetan zein egin diren eta hirugarrenen ibilgailuetan zein egin diren adierazi behar dute. Beraz, “zordunketa eta data” izeneko mekanismoa ezarri behar da. “Zordunketa” terminoak jasotako erregaiari egiten dio erreferentzia —kopurua, jasotzearen data eta hornitzailea— eta “data” izenekoak, berriz, irteerak islatuko ditu: kopurua, hornitutako ibilgailuaren matrikula zenbakia, data, erregai mota eta abar. Hori guztia dela eta, sistemari heldu nahi dioten enpresek, dagozkion aplikazio informatikoak ezartzeaz gainera, beren kontabilitatea adierazitako zehaztapenen arabera datuak emateko moduan moldatu behar dute.

Itzulketak egiteko modalitate horrek aitorpenak —hiru hilabetekoak ere— Internet bidez soilik aurkeztea eskatzen du, Administrazioak ere bide hori dagozkion kitapekin jakinarazteko erabiliko duelarik. Horren helburua, erregistratutako eragiketa kopuru handiaren isla den paperezko informazio kopurua handia sor ez dadin da.

Bestelako betebehak formalak

Gasolio Profesionalaren kontzeptuagatiko itzulketan nahi dituztenek, urte bakoitzeko urtarrilean aurreko urtean egindako kilometroen inguruko informazio-aitorpena egin behar dute. Takografoa duten ibilgailuen kasuan, gailu horretan erregistratutako datuak eta eskainitako informazioak bat etorri behar dute. Takograforik gabeko ibilgailuak dituztenek, aurreko urteko urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31ren artean egindako kilometro kopurua adierazi behar dute.

Aurretik, interesdunaz gainera, kudeatzaileek edo kide deneko enpresa elkarte edo sindikatuak ere eroldan alta eska dezaketela adierazi dugu. Hala ere, onuradunak soilik kontsulta ditzake itzulketekin lotutako datuak, datu horiek konfidentzialak baitira.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da araudiak zigorren erregimen oso zorrotza ezartzen duela baimendutakoak ez diren ibilgailuek txartela erabiltzeari, datuak ez aipatzeari, eta abarri dagokionez.